


KANALAK



Irati Ugalde
Mikel Moriana
Ekaitz Salaberria
Izar Susperregi

Produktu bat merkaturatzeko garaian kanal edo modu ezberdinak bereizten dira. Lehenengo modua, kanal zuzen bat sortzea izango litzateke, hau da, bitartekaririk gabeko kanal bat; langile talde batek sortutakoa. Bigarrena, zeharkako kanalak dira eta hauetan denda propio zein elkartuak bereizten dira. Hirugarrena, elkartutako kanala izango litzateke, esan bezala zeharkako kanal baten barruan dagoena; hauek, aukera zabal bat eskaintzen dute, merkatu zabalago batera iritsita, baina etekin-marjinalak txikiagoak dira. Azken modua, kanal propioak dira, eta hauek ere zeharkako kanal baten barruan sartzen dira; etekin handiagoak ekartzen dituzte, baino kudeaketa konplexuago bat dute.

Aukera horien artean egokiena iruditzen zitzaiguna aukeratu dugu; elkartutako kanala erabiltzea. Alde batetik, elkartutako kanaletan zure produktua beste denda batzuetan saltzen da, ondorioz, bezero gehiagotara iritsiko da, era berean, kostu txikiagoa izango du, ez dugulako gure lokal propioa ordaindu beharko. **Gure ustez, lehenengo hobe da gure produktuaren ale bakar batzuk ateratzea eta horren arabera ikustea zer den hobeto. Denda fisiko batean saltzea ala internet bidez saltzea.** Bi iturrietatik eskaintza asko izanez gero, bi bide horiek jarraituko ditugu, hots, denda fisikoa beste enpresa batzuekin egindako akordioen bidez irekiko genuke eta web orri bat irekiko genuke gure produktua saltzeko.

Dendari dagokionez, argi dago gure denda propioa irekita zaila izango dela aurrera eramatea, gastua handia izango delako eta produktu bakarra salduko genukeelako. Horregatik beste enpresa batzuekin hitz egingo dugu, gure motxilak beren dendatan saltzeko. Enpresa hauek Decathlon eta Forum bezalako enpresak izango dira, hau da, marka ezberdin askotako produktuak saltzen dituzten enpresak edo dendak.

Interneteko web orriari dagokionez, goi mailako webgune bat izango zen. Web orria diseinatzeko diseinu grafikoko enpresa batekin kontaktuan jarriko ginateke ahalik eta web orri hoberena egiteko. Bertan, dendan saltzen ditugun produktu berak salduko genituzke. Horrez gain, produktu bakoitzaren kolore desberdinak edo pertsonalizazioak on-line ikusteko aukera emango genuke, 3D-n noski. Gehigarri bezala, pertsonalizazio gune bat eskainiko genuke. Bertan, zure motxilaren koloreak eta osagarriak aukera ditzakezu; hau da item horiek kendu edo gehitu ditzakezu. Internetetik eskatutako motxilak mezularitza enpresen bidez joango litzateke. Bezeroen fideltasuna areagotzeko bezeroak nahi duen lekura eramango diogu motxila.